

BUELTAN DA "MENDIALDEKO AZOKA IBILTARIA" 2025erako AZOKA EGUTEGI ERAKARGARIAREKIN

Ohi bezala, azokek beste jarduera tematiko batzuk izango dituzte, ekimen hau aberastu eta sendotuko dutenak. Aurten, ekimenaren 6. edizioa ospatzen da, eta oraingoan Beteluk emango dio hasiera edizio berri honi. Apirilaren 13an izango da, igandea, Beteluko plazan, goizeko 11:00etatik aurrera.

Mendialdeko Azoka Ibiltaria, 2020an sortu zenetik bere ibilbideari eta filosofiari leial, bere seigarren edizioari ekingo dio, helburu argiekin: tokiko baserritarren eta eskualdeko artisauen denboraldiko produktuak sustatu, ikusgarritasuna eman eta saltzea. Sustapen eta salmenta kanal zuzena izanik, bertako produkturik onenak eskaintzeko aukera ematen du, modu iraunkor eta arduratsuan ekoitzitakoak, eta tokiko lehengaiak erabiltzea bereziki baloratzen du. Horrez gain, kontsumo arduratsua eta ingurumenarekiko kontzientzia sustatzen ditu, eskualde hauen paisaia, ekonomia eta kulturarekin bat eginez.

Azoka hauek bizia ematen dieten postuek kulturaren eta nekazaritza-abeltzaintzaren praktiken isla dira, bizimodu bat definitzen dute eta gaur egun gure esku dagoen lurralde baten erretratua marrazten dute. Bertan, produktu sorta anitz eta goxoa aurki daiteke: denboraldiko fruituak, gazta, eztia, taloa, hestebeteak, haragia, pateak, ogia, arrautzak, esnekiak, etab. Horiez gain, eskualdeko egur, zeramika, metal eta ehungintzako artisautza postuak ere izango dira.

2025erako, antolakuntzak urrats bat gehiago eman nahi du, azoka agroalimentario eta artisau postuak jarduera eta ekitaldiekin uztartuz, azokak erakargarriago bihurtzeko. Ekimen horiek publiko berriak erakarri eta bisitarien egonaldia luzatzeko helburua dute, erakusketak, tailerrak, erakustaldiak eta dastaketak eskainiz.

5 AZOKA ETA BESTE HORRENBESTE EKITALDI PARALELO

Ohiturak eta tradizioak, folklorak, baserriak, paisaiak, abereek eta bertako produktuek osatzen dute ekitaldi hauen ardatza, bisitariei ondare kultural eta

historiko aberatsa erakutsiz. Guztiek lotura zuzena dute bertako nekazaritza-abeltzaintza jarduerarekin eta, kasu batzuetan, Plazaola-Mendialdeako turismo elkartearen baliabideekin ere uztartzen dira. Sektore primarioaren eta turismoaren arteko lotura gero eta estuagoa da (ustategietara bisitak, dastaketak, museoak eta interpretazio zentroak, merkataritza, etab.).

2025erako aurreikusitako 5 azokek beste hainbeste ekitaldi paralelo izango dituzte:

Apirilak 13, Betelu: MAI + Dantzarien eta tokiko musikarien emanaldia

Maiatzak 18, Gorriti (Larraun): MAI + Latxa arrazako aharien IV. enkantea

Ekainak 1, Goizueta: MAI + Emakume Artzainen Eguna

Irailak 14, Leitza: MAI + XVIII. Talo Eguna

Azaroak 3, Jauntsarats (Basaburua): MAI + Gaztain Eguna

Zenbait kasutan, azoka aurrez finkatutako ekitaldiekin uztartuko da (adibidez, Leitzako XIX. Talo Eguna edo Larraungo Latxa Arrazako Ahari Enkantea), eta beste batzuetan, ekitaldi berri batzuen sorrera sustatuko da, hala nola Jauntsaratseko Gaztain Eguna.

Azoka guztiak igandeetan ospatuko dira, goizeko 11:00etatik 14:30etara.

Ekitaldiaren antolakuntzan Mendialdeako 10 udalerri parte hartzen dute (Araitz, Arano, Areso, Basaburua, Betelu, Imotz, Goizueta, Larraun, Leitza eta Lekunberri). Udalerri bakoitzak txandaka antolatuko du azoka, egutegi orekatuagoa izateko. Horrez gain, Cederna Garalur eta Plazaola Turismo Elkartearen koordinazio teknikoa dute, eta Mendialdeako baserritarren elkartea (HABELARTE), baita tokiko kontsumo taldeak ere (Araizko Zaporeak, LeitzEKO eta Bertatik Bertara Dinamika) proiektuaren parte dira.

Beste edizio batzuetan bezala, komunikazio eta zabalkunde lanak Plazaola Turismo Elkartearen ardura izango dira, Nafarroako Gobernuako Turismo Zuzendaritzaren laguntzarekin.

DANTZARIAK BETELUN

Mendialdeko Azoka Ibiltaria apirilaren 13an izango da, eta jaialdi kutsu berezia izango du, folklorearekin lotuta. Bertan, dantza tradizionalak eta musika izango dira protagonista, herriko trikitilari eta fanfarrearen eskutik.

Guztira, 23 postu egongo dira Beteluko plazan: 12 postu agroalimentario (ta-loa, gazta, ezti, haragi produktuak, hestebeteak, pateak, ogia, arrautzak, artisau garagardoa, olio, artisau txokolatea, etab.) eta 11 artisautza postu (egurra, zera-mika, metala, ehungintza, etab.), guztiak eskualdeko artisauenak.

Bertako produkturik onenak erakusteko aukera paregabea izango da, modu iraunkor eta arduratsuan ekoizitakoak, eta tokiko lehengaiak erabiltzea baloratzen duena. Ekimen honek, gainera, kontsumo arduratsua eta ingurumenarekiko kontzientzia sustatzen du, eskualdeko paisaia, ekonomia eta kulturarekin bat eginez.

Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du

Lekunberri, 2025eko apirilaren 3a